


# Futbolina, poesia eta anarkismoa



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**F**inisterre, Galizia, 1919ko maiatzaren 6a. Alexandre Campos Ramirez poeta, asmatzaile eta editore anarkista jaio zen; jaioterria zela-eta Alejandro Finisterre (galegoz, Alexandre Fisterra) esango zioten. 15 urte zituela joan zen Madrilerara ikastera. Hantxe ezagutu zuen León Felipe (1884-1968) poeta eta harekin batera *Paso a la juventud* aldizkaria sortu zuen. Eta hantxe harrapatu zuen Espainiako Gerra Zibilak. 1936ko azaroko bonbardaketetan hondakinen artean harrapatuta geratu zen eta Montserrateko ospitaleraino eraman zuten larriki zauritua. Han, osatu bitartean, futbolearen aritu ezin zuten haur zaurituak ikusita eta mahai-tenisa inspirazio iturri hartuta, mahai-futbola asmatzea bururatu zitzaion. Francisco Javier Altuna euskal arotzak gauzatu zuen ideia pinu egurra eta altzairuzko barrak erabiliz, eta, hala, lehen futbolina sortu zuten.

Beste ekintzaile anarkista baten aholkuz, diseinu hura patentatu zuen Finisterrek Bartzelonan, 1937ko urtarrilean. Horrekin batera beste asmakizun bat ere patentatu zuen: pianojole batekin maiteminduta zegoen eta harentzat oinekin partituren orriak pasatzeko gailua egin zuen.

Frankistek gerra irabazi zutenean, Pirinioak oinez zeharkatu eta Frantziara joan zen ihesi. Bidean futbolinaren patentea galdu omen zuen. Baina partitura-orriak pasatzeko gailuarekin diru



pixka bat biltzea lortu zuen Parisen eta, hala, 1948an Ekuadorrera joateko aukera izan zuen. Lau urtez bizi izan zen Quiton eta, besteak beste, *Ecuador 0º, 0'; 0''* poesia aldizkaria sortu zuen. 1952an Guatemalara joan zen, artean Espainiako Errepublikaren gobernua zilegitzat zuen herrialde bakanetakoa. Espainiako enbaxada errepublikarretik Mexikora isilpeko dokumentuak eramaten aritu zen. Eta futbolinak fabrikatzen eta saltzen ere arrakasta lortu zuen.

Baina 1954an, AEBek babestuta, estatu kolpea jo zuen Carlos Castillo Armas koronelak Guatemalan. Finisterre atxilotu eta agente frankistek hegazkin batean sartu zuten Espainiara bidean. Hegazkineko komunean lehegailu bat "asmatu" zuen xaboi-pastilla bat aluminiozko pa-

peretan bilduta. Lehegailu faltsu harekin mehatxatu arren, hitzez konbentzitu omen zituen tripulazioa eta bidaiariak. Hegazkina Panamara desbideratu eta hantxe lurreratu zen galiziarra. Futbolinaren ez ezik hegazkinen bahiketan ere aitzindari izan zen.

Hurrengo urteak Mexikon eman zituen. Besteak beste, Editorial Finisterre Impresora sortu zuen eta *Galeusca* aldizkariaren faksimile bat ere argitaratu zuen.

Franco hil ondoren itzuli zen Espainiara eta harrিতuta ikusi zuen futbolina oso zabaldua zegoela; baina aitortzarik eta sosik ez zuen ikusi orduan. Aitortza geroago iritsiko zitzaion. 2007ko otsailaren 9aren biharamunean egunkariak "futbolinaren asmatzailea" hil zela jakinarazi zuten. ●



## Autoak mutilentzako jostailuak omen

1952an Ann Odell neskato ingelesaren eskolan jostailu handiak eramatea debekatu zuten, soilik eskuan sartzen zitzaizkien jostailuak eramateko baimena zuten haurrek. Annen aita, Jack Odell ingeniaria zen (argazkian) eta metalezko kotxe txiki bat egin zion alabari.

Annek gustura hartu zuen aitaren oparia eta eskolan sekulako arrakas-

ta izan zuen jostailu berriak. Hala, eskaera zegoela ikusirik, Jack Odell kottxetxoak ekoizten hasi zen, Matchbox (pospolo-kaxa) izenez. 60ko hamarkada erdialderako, urteko 100 milioi Matchbox auto saltzen ziren. Mutilentzako jostailu nagusietakoak bihurtu ziren, berez neska batentzat sortuak izan arren. ●